

PROGRAMA ADIERAZPENA

Federación de Asociaciones de Padres y Madres del Alumnado de los Centros Públicos de Álava DENON ESKOLA, *Santo Tomás de Aquino eta Herrieskola*, Federazioen bategitetik sortua, inongo alderdi politiko, talde edo erlijio sinesbideren menpe ez dagoena eta irabazi asmorik ez duena, jabeturik dago kalitateko Euskal Eskola Publikoaren aldeko eginkizunak bateratzearen beharraz, borondateak bateratzean, elkarrekiko begirunean eta bertako partehartzaile guztien askatasunean.

Eskola Euskaldun, Autonomiadun eta Kudeaketa Demokratikoduna, hala aita-amek nola tutoreek hezkuntza prozesu osoan esku hartzea eta, Hezkuntza Elkarteko gainerako kideekin batera, beren seme-alaben heziketari eragiten dioten gai guztien inguruan (hala teknika nola antolakuntza alorrekoak) erabakitzeko ahalmena izan dezaten defendatuko duena, irakaskuntzaren kalitatearen hobekuntza ahalbidetzeko helburuarekin.

Partehartze aktibo eta arduratsu horrek ikastetxe bakoitzean heziketa eta hizkuntz proiektu berezituak burutzea bultzatuko du, eta laguntza eskainiko die Hezkuntza Elkarteko gainerako partaideei proiektuok gauzatzean. Eskolaren eta gizarte ingurunearen arteko lotura estutzeko bideak erraztuko ditu, ikastetxea bai gizarte, kultura eta abarren sektore guztietara, bai berarekin hezkuntza eta kultur nortasuna bilatzeko gogo berbera duten beste lurralde eta gizarte esparru batzuetara zabaltzea ahalbidetuz.

Egitasmo berritzaileak sustatu eta lagunduko ditu, lehia zintzo eta mesedegarria bultzatuko du eta ikasle guztien berdintasuna hobetuko duten osabidezko neurriak erdiestearen alde egingo du lan. Halaber, kultur nortasuna, hizkuntza, etab. sendotzeko helburuarekin bazkideek batera bultzatzen dituzten kultura eta kirol ekintzen garapen eta sustapena indartuko du.

Hori oinarritzat harturik, gurasoek eta, hala badagokio, ikasleek Ikastetxea askatasunez aukeratu ahal izatea defendatu eta bultzatuko du eta, ildo horri jarraiki, beharrian pertsonalei eta gizarte mailakoei erantzungo dien sare publikoa indartuko du.

Federazioan batutako elkarteek erabateko autonomia izango dute beren jardueren garapen eta antolakuntzan.

Federazioak har litzakeen erabakien babesa eta gauzatzea borondatez eta beraiei dagozkien alderdi guztietan burutuko dituzte Elkarteek. Direlako erabakiak betetzen ez badira, ez betetze horiek honako Estatutu hauetan xedatutakoaren arabera baino ezingo dira zigortu.

LEHEN ATALBURUA

IZENA

1. atala.- Federación de Asociaciones de Padres y Madres del Alumnado de los Centros Públicos de Álava DENON ESKOLA izenaren pean, irabazi asmorik gabeko Federazio bat eratu da, Eusko Legebiltzarrak onetsitako otsailaren 12ko 3/88 Elkartearen Legean xedatutakoari helduz, haren estatutuak ondoren Euskadiko Elkartearen Legean, 7/2007 ekainaren 22koa, eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen 1/2002 lege organikoan eta Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 9 eta 10.13 ataletan jasotakoaren arabera aldatu direlarik.

Delako Federazioa, Sto. Tomás de Aquino eta Herrieskola Guraso Elkartearen Federazioen (GEF) bategitearen ondorioz sortua, honako arauen arabera eraenduko da: goian aipatutako Elkartearen Legean agindutakoari jarraiki, honako Estatutu hauen arabera, beti ere Legearekin bat datozen guztian, bere Gobernu organoek hartutako baliozko erabakien bidez, baldin eta Legearen edota Estatutuen aurkakoak ez badira, eta Eusko Jaurlaritzak onartzen dituen arauzko xedapenen bitartez, izaera osagarria baizik izango ez baitute.

Arabako Ikastetxe Publikoetara joaten diren ikasleen Guraso Elkarte guztiek osatu ahal izango dute Federazioa, eurek libreki hala nahi badute, beti ere Federazioaren xedeak eta beronen Estatutuen edukia onartzearen baldintzapean.

LORTU NAHI DITUEN HELBURUAK

2. atala.-

1.- Ikastetxe Publikoetara joaten diren ikasleen guraso eta tutoreek Ikastetxe horien jardueran osoki esku hartzeko duten eskubidea sustatu eta babestea.

2.- Irakaskuntza humanistiko eta zientifikoa lortzea, kalitate tekniko handikoa eta kritikarako gaitasuna eta izpiritu librea garatuko duena, ezberdintasunak arintzeko irakaskuntza osabidezkoa eta aniztasunaren integratzailea.

3.- Kulturaren alorrean, Euskal Herrian era dinamikoan eta sortzailean errotutako hezkuntza, gizarte, politika eta ekonomia ingurunean guztiz integratua, kultura nortasuna berreskuratzean –hizkuntza, zentzu historikoa, etab.– aktiboa.

4.- Doakoa, baldintza berdintasunean, fondo publikoen bidez finantzatua, bertan ikasleriaren heziketa integrala xedetzat duena (doakoa diogunean irakaskuntza ez ezik, prestakuntza ekintza guztiek, testu liburuek, eskola materialak, garraioak, etab. ere doakoak izan behar dutela ulertzen dugu).

5.- Autonomiaduna, demokratikoa eta pluralista, Hezkuntza Elkarte osatzen duten gainerako taldeekin batera, aita eta amen partehartzea aintzat hartuko duena.

6.- Aukera berdintasuna benetan gauzatuko duena, inolako baldintzapenik gabe.

7.- Hezkuntza Elkarte osoan adierazpen askatasuna bermatuko duena.

Ekonomia, zuzenbide, gizarte edo erlijio zioengatik bazterkeriarik eza bermatuko duena.

8.- Bi hizkuntza ofizialen ezagutza eta erabilpena ziurtatuko duen derrigorrezko eskolatzea lortzea, ikasleak askatasunez beren ikasketak horietako edozeinetan jarraitzeko moduan egon daitezen.

9.- Ama eta aiten eskariari behar bezalako erantzuna emango dion Haur Hezkuntzaren eskaintza eskatzea. Halaber, derrigorrezko hezkuntza amaitzen duten ikasleentzat erantzun egokia eman diezaieten exijitzea, barauk lan mundura sartu bitartean.

3. atala.- Aipatu helburu horiek erdiesteko, ezarritako legezko betekizunak beteta, ondorengo ekintzak burutuko dira:

a) Toki, lurralde, Autonomia Erkidego eta nazio mailako nahiz beste zeinahi erakundetan esku hartu, Eskola Publikoan eragina duten xedapenei dagokienez, baita berauek prestatzeko lanetan.

b) Elkarteen interesak ordezkatu eta babestu, hezkuntza sisteman eragina duen arlo orotan.

c) Honako Federazio honen barne dauden elkarte guztien, hala Eskualdeko, nola Tokiko eta Ikastetxeen ahalegin, kezka eta asmoak bultzatu eta bateratu.

d) Ikasleriaren gurasoen gizabidezko prestakuntza eta prestakuntza intelektuala hobetzeko balio duten kultur ekintza mota guztiak sustatu.

e) Euskara eta Euskal Herriko kultura indartzea.

f) Elkarreak antola daitezten bultzatzea, oraindik horrelakorik ez dagoen ikastetxeetan.

g) Era berean, erakunde eskudunen eta Irakaskuntzari loturiko agintarien aurrean gestioak eginez, Irakasleriaren etengabeko hobekuntza lortzea.

h) Honako honen antzeko beste erakunde batzuekin, jadanik eratuta nahiz etorkizunean sor litezkeenekin, integrazio prozesu bati irekita egon, alde aurretik Batzar Orokorak horrela erabakiko balu.

i) Gure gizarte eta politika, kultura eta ekonomia inguruneke estamentu guztiekin elkarrizketak izan eta hitzarmenak izenpetu, oro har Irakaskuntza Publikoari dagokion guztian eta, bereziki, Euskal Eskola Publikoari eragin diezaiokkeen ororen gainean.

j) Eta xedetzat hartu diren helburuak lortzeko beharrezkoa den beste edozein.

Aurreko azpiatalean adierazitako jardueren kalterik gabe, Federazioak honako hauek egin ahal izango ditu bere xedeak erdiesteko:

-Mota orotako jarduera ekonomikoak garatu, bere helburuak gauzatzera bideratuak, eta bai halaber zeinahi moldetako baliabideak bildu.

-Legeekin edo bere Estatutuekin bat datozen ekimen guztiak burutu.

BIGARREN ATALBURUA

BALTZU HELBIDEA

4. atala.- Federazio honen baltzu helbidea Vitoria-Gasteizen, Florida kaleko 62, A - 2. solairuan.

Federazioak beste lokal batzuk eduki ahal izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoan edo bertatik kanpo, ezohiko Batzar Orokorak hala erabakitzen duenean.

Baltzu helbidearen aldaketa eta Federazioak dituen gainontzeko lokaletatik egin litezkeen lekualdaketak, Zuzendaritza Batzordeak erabakiko ditu, eta beronek Elkarteen Erregistroari helbide berria jakinaraziko dio.

LURRALDE ESPARRUA

5. atala.- Bere eginkizunak beteko dituen lurralde esparrua batik bat Arabako Lurralde Historikoarena izango da.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

6. atala.- “DENON ESKOLA”, Arabako Ikastetxe Publikoetako Ikasleen Guraso Elkarteen Federazioa, izaera iraunkorraz eratzen da, eta, VII. Atalburuan xedatutakoari jarraiki, berau Ezohiko Batzar Orokorraren erabakiaren bitartez edo Legeetan jasotako edozein ziotan oinarrituz baino ezingo da desegin.

HIRUGARREN ATALBURUA

AGINTE ETA ADMINISTRAZIO ORGANOA

7. atala.- Federazioaren zuzendaritza eta administrazio lanak ondorengo taldeko organoen ardura izango dira:

- * Bazkideen Batzar Orokorra, organo gorena izango dena.
- * Zuzendaritza Batzordea, zuzendaritza iraunkorrerako taldeko organo gisa.

BATZAR OROKORRA

8. atala.- Batzar Orokorra Federatutako GE (Guraso Elkarte) guztien ordezkariak osatzen dute eta GEn borondatearen adierazpen organoa da. Ohiko eta ezohiko bilkuretan batzartuko dira.

Ordezkari kopuruari dagokionez, Ikastetxe bakoitzeko ikasle kopuruan oinarrituriko irizpideak erabiliko dira, ondoko baremo honen arabera:

1 eta 110 ikasle bitartean	Ordezkari bat GEko
111 eta 250 ikasle bitartean	Bi ordezkari GEko
251 eta 400 ikasle bitartean	Hiru ordezkari GEko
401 eta 650 ikasle bitartean	Lau ordezkari GEko
651 eta 1.000 ikasle bitartean	Sei ordezkari GEko
1.001 eta 1.500 ikasle bitartean	Zortzi ordezkari GEko
1.501 eta 2.000 ikasle bitartean	Hamar ordezkari GEko.

9. atala.- Batzar Orokorrak urtean behin, gutxienez, eta ikasturtearen lehen hiruhilekoan egin beharko du ohiko bilkura, Federazioaren jarduera egitasmo orokorra, aurreko urteari dagokion kontuen eta diru sarreren egoera eta hurrengo urtealdirako aurrekontua eta Zuzendaritza Batzordearen gestioa onartzearen; Zuzendaritza Batzordeak Batzarrak emandako jarraibideen arabera eta beronen kontrolpean jardun beharko du beti.

10. atala.- Aurreko atalean xedatutakoaren kaltetan gabe, Batzar Orokorraren eskumenak dira ondorengo gai hauei buruzko erabakiak:

- 1.- Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertzea eta onestea.
- 2.- Estatutuak aldatzea.
- 3.- Elkartea desegitea.
- 4.- Presidentea, idazkaria eta diruzaina hautatzea eta kargugabetzea, bai eta kide anitzeko gobernu-organoko kideak ere, horrelakorik balego, halaber, kide anitzeko organoa gainbegiratu eta kontrolatuko du.
- 5.- Beste elkarte batzuekin federazioa edo konfederazioa osatzea, edo halakoren batetik ateratzea.
- 6.- Ondasun higiezin erabilera edo besterentzea onestea.

- 7.- Halakorik bada, gobernu-organoko kideen ordainsariak erabakitzea.
- 8.- Ohiko kuotak eta kuota bereziak zehaztea, nahiz eta Batzar Nagusiak ahalmen ori gobernu-organoaren esku utz dezakeen, erabaki adieraziaren bidez.
- 9.- Elkartekideei elkarte behin betiko utzarazteko erabakia hartzea.
- 10.- Estatutuek Batzar Nagusiari esleitzen dizkieten beste eskumen guztiak.
- 11.- Elkartearen ekintza plan nagusia onartu.
- 12.- Zuzendaritza batzordearen kudeaketa onartu.

11. atala.- Batzar Orokorra ezohiko bilkuran batzartuko da Zuzendaritza Batzordeak horrela ebazten duenean, bai Batzordearen beraren ekimenez, bai elkartutako GEen ehuneko hamarrek eskatu duelako (beti ere, GE kopuru horrek gutxienez ordezkari osoaren % 20 ordezkatu behar du); bilkuraren zergatiak eta helburuak adierazi behar dira eta, nolana ere, honako gai hauei buruzko berri jakin eta erabaki ahal izango da:

- a) Estatutuen aldakuntzak.
- b) Federazioaren deuseztapena.
- c) Ondasunak eskuratzea eta besterentzea.
- d) Federazioa Herriaren onurakotzat aitortzeko eskatzea.
- e) Atal honen lehenengo azpiatalean adierazita dauden baldintzak betetzen dituztenek eskatutako beste zeinahi gai.

Eskaria Federazioaren Lehendakariari zuzenduko zaio idatziz, eta beronek eskaria jaso eta 30 eguneko epearen barruan deituko du Batzarra. Deialdia Federazioaren Idazkaritzak egingo du kasu guztietan.

12. atala.- Batzar Orokorren deialdiak, berdin ohikoak edo ezohikoak izan, idatziz egingo dira, eta bertan bilkuraren lekua, data eta ordua adierazi behar dira, baita Gai Zerrenda ere. Deialdiaren eta Batzarra egiteko egunaren artean 15 eguneko tarte egongo behar da gutxienez, jakinarazpenean 1. deialdiaren ordua eta 2. deialdiaren ordua azalduko dira, azken honetarako ordua lehen deialdirakoa baino ordu erdi beranduago izanik.

13. atala.- Batzar Orokorrak, ohikoak nahiz ezohikoak, lehenengo deialdian baliotasunez eratuta egon daitezten, federaturiko GEen erdiak gehi bat elkartu, bertaraturik edo beste batzuek ordezkaturik, eta aldi berean ordezkari osoaren % 51 ordezkatu behar dute bederen. Bigarren deialdian, berriz, agertutako GE kopurua eta portzentaia edozein direlarik ere.

Elkarte guztiek osatuko dituzte Batzarrok, GE bakoitzak gehienez hiru ordezkari bidaliko ditu, baina aitortuta dauzkan ordezkari botoen jabe izango dira.

Batzar Orokorretan esku hartzeari dagozkion xedetarako, GEek federaturiko beste edozein GEren esku jarri ahal izango dute beren ordezkari. Delako ordezkari idatziz emango da eta Batzarren Idazkariaren esku egon behar du bilkura hasi baino ordu erdi lehenago gutxienez. Federazioaren baltzu helbidea dagokion udalerria ez beste udalerri batzuetan lekututa dauden GEak posta bidez igorri ahal izango dute ordezkari egiaztatzen duen agiria.

14. atala.- Batzar Orokorren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira; berdinketa gertatuz gero, jarrerak hurbiltzeko atsedenaldi baten ostean, berriz ere bozketa burutuko da eta, oraindik ere emaitza berdinketa izanik, Lehendakariaren kalitateko botoak erabakiko du. 11. atalari dagozkion erabakietarako, ordezkari osoaren 2/3 behar dira. GE bakoitzak Estatutu hauetan edo Batzarren Araudian aitortuta daukan boto kopurua izango du.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

15. atala.- Zuzendaritza Batzordea Federazioaren ordezkariak, kudeaketa eta administrazio organoa da. Baltzu urtealdi osoan Federazioaren helburuak lor daitezten eta beronen interesak bide onetik joan daitezten arduratuko da zuzenki eta etenik gabe. Estatutuak bete eta betearazi egingo ditu eta Batzar Orokorraren erabakiak gauzatuko ditu. Bere kudeaketak kultura, ekonomia eta harreman publikoen alderdiak barne hartuko ditu.

Zehazki, Zuzendaritza Batzordeak honako Estatutu hauen 3. Atalean ezarritako ekintzak antolatuko ditu; Federazioaren berezko diru sarrera eta ordainketak egingo ditu eta Federatutako Elkarteek burutzen dituzten ahaleginak zabaltzeaz arduratuko da, 24. Atalean xedatutakoari jarraiki.

Zuzendaritza Batzordea Lehendakaria, Idazkaria, diruzaina eta batzordekideek gehienez 15 gutxienez 1, osotuko dute. Ahal den neurrian federatutako ikastetxe publikoen tipologia guztiak ordezkaturik egongo dira Zuzendaritza Batzordean. Gutxienez hilean behin eta gizarte ekintzen garapen egokiak hala eskatzen duenean bilduko da. Zuzendaritza Batzordearen bilerak irekiak izango dira.

16. atala.- Zuzendaritza Batzordea osatzen duten kideak Batzar Orokorreko partaideen artean aukeratuko dira. Urteroko Batzar Orokorrean gai zerrendan ikasturte berrirako Zuzendaritza Batzordea osotuko duten pertsonak aurkezteko puntu bat zehaztuko da, aurreko Batzar Orokorrearekin alderatuz emandako altak eta bajak azalduz. Batzar Orokorrak aurkezten den Zuzendaritza Batzordea berretsi beharko du.

Beren funtzioak betetzeagatik Zuzendaritza Batzordeko kideek ez dute inolako ordainsaririk jasoko, alabaina, Batzar Orokorrak dietak eta bidaiak ordaintzea erabakitzeke ahalmena izango du.

17. atala.- Zuzendaritza Batzordeko partaide izan ahal izateko ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- a) Estatutuetan ezarritako moduari jarraiki hautatua izatea.
- b) Erakundeko bazkide izatea.
- c) Adinez nagusi izatea eta eskubide zibil guztien jabe izatea.
- d) Bere GEaren Zuzendaritza Batzordearen abala izatea.

18. atala.- Zuzendaritza Batzordearen partaide izateko agintea, Batzar Orokorrak aukeratuta, onarpena edo aginte-hartzea gauzatzen denean bereganatuko da.

19. atala.- Zuzendaritza Batzordeko kideek honako kasu hauetan utziko dute kargua:

- a) Dimisioa.
- b) Bazkide izateari uztea, edo ezgaitasun zioeren batean sartzea.
- c) Batzar Orokorrak erabakitako ezeztapena, honako Estatutu hauen 16. atalean jasotakoa ezarriaz.

Kasu hauetan, Zuzendaritza Batzordeak berak beteko du hutsunea behin-behineko izendapena eginez; Batzar Orokorrak izendapen hori berretsi edo ezeztatzeke eta, azken hori gertatuz gero, dagokion izendatzea burutzeko ahalmena izango du.

Organo hori osatzen duten partaideetan egin litekeen aldaketa oro Elkartearen Erregistroari jakinaraziko zaio.

20. atala.- Zuzendaritza Batzordearen zereginak honako hauek dira:

- a) Federazioaren ohiko kudeaketa zuzentzea, Batzar Orokorraren Ildoekin bat etorriaz eta beronen kontrolpean.
- b) Federazioak gauzatu beharreko jarduerak antolatzea.

c) Diru irteera eta sarreren urteroko aurrekontua eta lehengo urteko kontu egoera Batzar Orokorraren eskura jarri beronek onar dezan.

d) Batzar Orokorraren bileren Gai Zerrenda prestatu, eta bai ohiko eta ezohiko Batzar Orokorrak deitzeko erabakia hartzea ere.

e) Bazkideek aurkezten dituzten proposamen edo iradokizunak aintzat hartzea, dagozkion beharrezko neurriak hartuz.

f) Bere kideen artean Batzorde Iraunkorreko partaideak hautatzea.

g) Batzar Orokorrari esleitu ez zaion beste edozein.

21. atala.- Zuzendaritza Batzordea hilabetean behin bilduko da ikasturteak iraun bitartean, baita bere kideetakoren batek eskatzen duenean ere. Lehendakaria izango da Batzordearen buru eta, bera ez badago, Lehendakariak horren ardura utzi dion pertsona izango litzateke buru.

Lehendakaritzari dagokio deialdia luzatzea, bilkura egin baino 72 ordu lehenago gutxienez, bileraren Gai Zerrenda, data eta lekua adieraziz. Lehen deialdian baliotasunez eraturik egongo da partaideen erdiak gehi bat bertaratzen direnean, eta bigarren deialdian, ordu erdi beranduago, bertaratutako kideen kopurua zeinahi izanik ere.

Erabakiak hartzeko bertaratutako botoen gehiengo soilak erabiliko da. Berdinketa gertatuz gero, jarrerak hurbiltzeko atsedenaldirik baten ostean, beste bozketa bat egingo da; berriz ere emaitza berdintasuna baldin bada, Lehendakariaren kalitateko botoak erabakiko du. Idazkariak bilkuretan jorratutako gaien agiria egin eta Federazioaren Bilkura Agirien Liburuan transkribatuko du. Haren laburpen bana bidaliko die Federatutako GE guztiei.

22. atala.- Zuzendaritza Batzordeak ezin izango ditu ondasun higiezinak besterendu ezta dirurik maileguz hartu ere (urteko aurrekontuaren % 20 baino gehiago) Ezohiko Batzar Orokorrak horren inguruan aurretiaz hartutako erabakirik gabe.

Zuzendaritza Batzordeak eskumen handiak izango ditu, muga hori ahaztu gabe, Batzar Orokorrak onetsitako aurrekontuaren barne berau baliatzeko. Zordunketa, idazki eta faktura guztiak Lehendakariak edo Diruzainak onartuko ditu.

Administrazio eta langileriarentzako lokalak alokatzeko kontratuak legezko egin ahal izango ditu, baina horiek ez dute erabateko eraginik izango Ezohiko Batzar Orokorrak berresten ez dituzten bitartean.

23. atala.- Zuzendaritza Batzordeak bere bilkuretara edota Batzar Orokorrak egiten dituen horietara gonbidatu ahal izango ditu, hitzarekin baina boto eskubiderik gabe, Federazioaren eta beronen xedea osatzen duten helburu espezifikoen aldeko beren jardura nabarmenagatik, beren ezagutza tekniko zein profesionalengatik edota hezkuntzaren esparruan duten garrantziagatik, burutu nahi diren ekintza nahiz lanei ekarpen interesgarriak egin ditzaketen pertsonak.

24. atala.- Zuzendaritza Batzordeak, bere zereginetan eraginkorragoa izateko, egokitzat jotzen dituen batzorde guztiak izendatzeko ahalmena izango du; bakoitzari helburu zehatzak betetzeko enkargua egingo dio.

KIDE BAKARREKO ORGANOAK

Lehendakaritza

25. atala.- Federazioaren Lehendakariak haren legezko ordezkaritza hartzen du bere gain, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak onartutako erabakiak gauzatzeko ditu; bi organo horien lehendakaritza izango du, hurrenez hurren.

26. atala.- Ez Zuzendaritza Batzordeari ez Batzar Orokorrari espresuki ez dagozkien eskumen guztiak Lehendakariaren ardura izango dira, honako hauek bereziki:

a) Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak egiten dituzten bilkuretarako deia egin eta bilkurok amaitutzat eman, bataren eta bestearen deliberamenduak zuzendu, eta kalitateko

botoaren bidez erabaki jarrerak hurbiltzeko ahalegin guztiak eginda bozketetan berdinketak irauten baldin badu.

b) Elkartearen jarduera egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatu, baita bera bultzatu eta beraren inguruko zereginak zuzendu ere.

c) Baliotasunez erabakitako ordainketak eta Idazkaritzaren jakinarazpenak bere sinaduraz baimendu, eta bai halaber talde organoen egintza eta erabakietan.

d) Federazioa ordezkatu, bakarka nahiz Zuzendaritza Batzordeko beste kide bat edo batzuekin taldeka, ofizialki esku hartzen duen ekitaldi publiko guztietan.

e) Federazioaren legezko ordezkari modura jardun parte hartu behar duen egintza eta kontratu guztietan, Zuzendaritza Batzordeak alde zuzenetik hala erabakita.

f) Sor litezkeen premiazko auziei konponbidea ematearren, Batzorde Iraunkorra deituko du erabaki egokiak har ditzan; horren berri eman beharko dio Zuzendaritza Batzordeari egiten den aurreneko bilkuran.

g) Indarrean dauden Lege eta Araudiek aitortutako beste edozein.

Idazkaritza

27. atala.- Idazkariaren eskuduntza da sartzeko eskariak jaso eta bideratzea, Bazkideen Erregistro Liburua eta fitxategia eramatea, eta Bilera Agirien Liburua zaindu eta idazteaz arduratzea, eta era berean Gutunen Sarrera eta Irteeren Erregistro Liburua eramatea.

Orobat, Elkarteen alorrean indarrean dauden legezko xedapenak bete daitezzen arduratuko da, Erakundearen dokumentu ofizialak jagonez Elkartearen liburu eta artxiboen edukia egiaztatuz, eta Zuzendaritza Batzordearen izendapenei eta baltzu helbideen aldaketei buruzko aginduzko jakinarazpenak agintari eskudunarengana bideratuz.

Diruzaintza

28. atala.- Diruzainak diru sarrerak eta irteerak jaso egin beharko ditu horretarako propio erabiliko den Liburuan, dagozkion ziurtagiriak edo/eta kontularitza agiriak artxibatuz. Urteko aurrekontua gauzatuko du, aurreko urteko kontu egoera bezalaxe; biok Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar zaizkio Batzar Orokorraren onespena jaso dezaten.

Batzorde Iraunkorra

29. atala.- Lehendakariak eta Zuzendaritza Batzordeak aukeratutako pertsonak osotuko dute.

Zuzendaritza Batzordearen Gai Zerrendan sartu beharreko kontuak eta jarrera hartu edo iritzia ematea eskatuko duten gaiak taxutuko ditu; ildo horretan, gehiengoak komenigarrientzat jotzen dituen premiazko erabakiak hartuko ditu, eta, Zuzendaritza Batzordeari emango zaio horien berri beronek egiten duen lehen bilkuran.

Bilera hauetan Batzordeetako gaiak lantzen direnean dagokion Zuzendaritza Batzordeko kideak parte hartu ahal izango du hitzarekin baino botorik gabe.

Batzordekideak

30. atala.- Batzordekideek Zuzendaritza Batzordeak eman zizkien eginkizunak beteko dituzte, hurrenez hurren.

Federazioa ordeztu ahal izango dute Zuzendaritza Batzordeak egoki irizten dien ekitaldi guztietan.

Koordinatzailea

31. atala.- Zuzendaritza Batzordeak, Batzar Orokorrak agindutako funtzioak bete ahal izateko, eta hark onartutako jarduera eta aurrekontu mugen barruan, ahalmen osoa izango du langileria egokia kontratatzerakoan aukeraketa egin, baldintzak zehaztu eta kontratuak eteteko gaitasunarekin.

Langileria hau Koordinatzaile Teknikoak antolatuko du, ordezkari mugatuarekin, eta Federazioaren ordezkari legez arituko da Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duen gaitan, Batzar Orokorrak horrela adostu eta gero.

Koordinatzailearen funtzioak izango dira:

a) Federazioa bere helburuak lortzera bultzatu eta Zuzendaritza Batzordeak bete helburuak lor ditzan animatu.

b) Zuzendaritza Batzordeak eta Presidentziak Batzar Orokorraren ordezkariak agintzen dizkioten jarduerak zein ezarritako helburuak lortzeko egokiak ikusten direnak burutu, beti ere Zuzendaritza Batzordeak, Batzar Orokorrak Ohiko edo Ez-ohiko deialdian emandako baimenaz, Notario aurrean ematen dion ahalmenaren mugen barruan.

c) Federazioaren kanpo ordezkariak.

d) Gobernu organoen saioetako Akten erredakzio eta zabalkundea, haietako edukien fede emanaz Presidentearen oniritziarekin.

e) Bulegoa eta kontratatutako langileriaren zuzendaritza burutu funtzionamendu egokia izan dezan.

f) Federazioko langileriaren kontratazioa edo kontratu etetea proposatu, gaiaren inguruko legeriak adierazten duena jarraituz; eta baita langile hauen lan baldintzak, eskumenak, betebeharrak eta soldata proposatu.

f) Bere jarduera eta emaitzen berri eman Zuzendaritza Batzordeari.

LAUGARREN ATALA

BAZKIDEAK ONARTU ETA KANPORATZEKO PROZEDURA

32. atala.- Hala nahi duten GE guztiak izango dute Federazioko kide izateko aukera, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

Onarpen eskaria idatziz egitea, eta horrekin batera ondoko agiriak aurkeztu:

a) Beren Batzar Orokorraren Aktaren ziurtagiria edo kopia, Federazioan sartzearen aldeko erabakia jasotzen duena eta ordezkari izango diren pertsona fisikoen izendapena.

b) Beren Zuzendaritza Batzordeko partaideen izenen zerrenda.

c) Beren Estatutuen kopia, Elkarteen Erregistroko zenbakiarekin eta baltzu helbidearekin batera.

d) Beren GEko partaideen kopurua.

e) Federazioaren Batzar Orokorrak, elkartera biltzeko eskubide gisa, onartzen duen kuota ordaintzea.

33. atala.- Federazioa, bere Zuzendaritza Batzordearen erabakiaz, ohorezko bazkide izendatu ahal izango dituzte, bertako partaide izateko baldintza guztiak bete arren, fisikoki eta Elkartera bertaratuz baltzu helburuen alde jarduterik ez duten pertsona guztiak. Bazkideon izaera ohorezko baizik ez da eta, hortaz, ez du partaide izaera juridikorik ematen, ezta haren Gobernu eta Administrazio organoetan esku hartzeko eskubidetik ere, betebeharrak mota orotatik salbuetsita izanik.

34. atala.- Federazioa, berau osatzen duten Elkarte guztien berdintasun hatsarrean oinarrituta dago, eta honako Estatutu hauen 8. atalean jasotako baremoaren arabera dagokion partehartzea kuotarekin bat etorriaz. Federazioaren jarduerak, elkartutako GE bakoitzaren autonomia errespetatu egingo du, euren barne auzietan nahastu gabe.

35. atala.- Elkarte bakoitza Federaziora bildu edo bertatik banantzea zeharo libre eta borondatezkoa izango da; horren inguruko ebazpenak bere organo eskudunek hartuko dituzte.

GE federatuak kanporatu edo banatzeko, Federazioaren Batzar Orokorraren gehiengoak hartutako erabakia behar izango da, eta Estatutu hauetan ageri diren xede edo helburuetako baten hauste edo ez-betetze larria egin izanaren ondorioz.

36. atala.- Arabako Ikastetxe Publikoetako Ikasleen Guraso Elkartearen Federazioa beste Federazio batzuekin konfederatu ahal izango da.

BAZKIDEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

37. atala.- Bazkide orok ondorengo eskubideak ditu:

1) Elkartearen Legearen eta honako Estatutu hauen aurkako erabaki eta jokabideak aurkatzeko, legeak ezarritako berrogei eguneko epearen barruan, auzi jartzaileak aurkaturiko erabakiaren edukia ezagutu, edo ezagutzeko aukera izan duen egunetik hasita.

2) Ezagutzea, momentu orotan, Federazioaren gainerako partaideen nortasuna, sarrera eta gastuen kontu egoera eta haren jardueraren garapena.

3) Batzar Orokorreran hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea erabiltzea; xede horretarako, bere ordezkaritza beste kide batzuei eskuordetu ahal zaie.

4) Estatutu hauekin bat etorriz, Federazioaren zuzendaritza organoetan esku hartzea, horietarako hautesle eta hautagai izanik.

5) Indarrean dagoen legerian ezarritako Bazkide fitxategian agertzea eta, era berean, Federazioaren ikurra erabiltzea, horrelakorik balego.

6) Estatutuen eta Barne Araudiaren -horrelakorik balego- ale bana edukitzea, eta zuzendaritza organoen aurrean eskaerak eta kexak aurkeztea.

7) Baltzu ekimenetan, taldekakoetan eta GE federatuen erabilera komunerako bitartekoen (lokalak, informazioa, aholkularitza...) erabiltzean parte hartzea, Zuzendaritza Batzordeak kasuan kasu ebazten duen eran.

8) Bere buruaren defentsa egitea, bere kontrako diziplinazko neurriak har daitezkeen baino lehen, eta haiek sortarazten dituzten zioen berri emanez; neurriok bazkide gisako betebeharrak ez betetzean baino ezingo dira oinarritu.

9) Federaziotik legeriari buruzko informazioa hartu eta hezkuntza eta kultura aldetiko gaien eta oro har denen intereseko direnen inguruko prestakuntza jasotzea.

10) Federazioak bere autonomia errespetatu dezan eta bere barneko auzietan ez nahasteko eskubidea, beti ere auziok Batzar Orokorrak adierazitako irizpideei eragiten ez badiete.

11) Federatutako Elkarte orok Zuzendaritza Batzordeari eskariak helarazi eta ekimenak bultzatzeko eskubidea du.

12) Eta Estatutuekin eta Legeriarekin bat ematen diren gainerako eskubideak.

38. atala.- Honakoak dira federatutako GEen betebeharrak:

a) Federazioaren xedeak erdieste aldera aktiboki jardun eta lan egitea.

b) Gastuei aurre egiten laguntzea, Batzar Orokorrak zehazten dituen kuotak ordainduz, dagokion partehartze kuotaren arabera.

c) Honako Estatutu hauei eta Federazioa zuzentzen duten organoek hartutako erabakiei men egin eta betetzea.

39. atala.- Federazioak ez du bere gain hartuko zeinahi Elkarte federatuk burutzen dituen egintzen erantzukizunik, horiek pribatiboak izan edo ez.

Federazioak bere gobernu organoek, haren Estatutuak betez, burutzen dituzten egintzen ardura baino ez du hartuko bere gain.

40. atala.- Federazioak ezin exijituko die bere Elkarteei euren interesak kaltetzen dituzten lankidetzak egitea; halaber, ezin izango ditu Elkarte batzuei onuragarri suertatzen zaizkion jarduerak burutu berauek beste batzuen kalterako baldin badira. Edozein arrazoiengatik kalte hori saihesterik ez badago, dagokien Elkarteen artean horiei aurre egiteko txandakako hurrenkera bat ezarriko da..

41. atala.- Federazioaren Gobernu Organoak dira beronetan eragina duten gaietan eskuduntza duten bakarrak, beraz, guztiz debekatuta daukate federatutako GEek eta horietako bakoitzari elkartutakoek gizarte komunikabideen bidez (prentsa, irratia, telebista) Gobernu Organoen ez beste inoren ardurapean dauden kontuak zabaltzea, berauek baimen ageria ematen dietenean izan ezik.

ZIGOR ARAUBIDEA

42. atala.- Zuzendaritza Batzordeak GE federatuak zigortu ahal izango ditu Estatutuak edo Batzar Orokorraren nahiz Zuzendaritza Batzordearen erabakiak behin eta berriz hausteagatik.

Gutxieneko zigorra 15 egunetik hilabetera bitarteko epean eskubideak kentzea eta gehienezkoa behin betiko banantzea izan daitezke.

Ondorio horietarako, Lehendakariak ikerketa zabaltzea erabaki dezake, hartara zigorgarriak izan daitezkeen jokabideak argitzeko. Idazkaritza arduratuko da jarduketak gauzatzeaz, eta beronek neurri egokiak hartzea proposatuko dio Zuzendaritza Batzordeari. Zigorrak ezartzea Zuzendaritza Batzordearen eskumena izango da, eta haren aurretik nahastutako GEari entzun beharko zaio.

Delako ebazpenak arrazoitua beharko du izan beti, eta haren aurka Batzar Orokorraren aurrean aurkeztu ahal izango da helegitea, 37.1. atalean ezarritako akzioen kalterik gabe.

43. atala.- Honako kasu hauetan galduko da Elkarte Federatuaren izaera:

a) Elkarte kidearen deuseztapenagatik.

b) norberaren borondatez, Batzar orokorrean hartutako erabakian eta Federazioaren Lehendakariari zuzendutako idazkiaren bitartez; delako idatzian baja eskariaren arrazoi eta zioak adieraziko dira, eta baja horrek ez du erabateko eraginkortasunik izango jakinarazi eta Federazioaren Batzar Orokorrek berretsi arte.

c) Estatutu hauetatik eratorritako ekonomia betebeharrak edo beste edozein eratakoak ez betetzeagatik.

d) Indarrean den legerian jasotako gainerako arrazoiengatik.

44. atala.- Elkarteren batek zeinahi zioengatik Federazioaren barne egoteari uzten dionean, berorretan edo beraren ondasunen gainean izan litzakeen eskubide guztiak galduko ditu, eta berauek Federazioaren esku pasako dira.

BOSGARREN ATALBURUA

BALIABIDE EKONOMIKOAK

45. atala.- Federazioaren SORRERAKO ONDAREA 3.946.096 pezetatan balioztatu da; kopuru hori "Santo Tomás de Aquino" eta "Herrieskola" GEen likidazio balantzeak gehituz lortu da. Baliabide ekonomikoak hauek izango dira:

a) Batzar Orokorrak Federazioaren beharizanen eta federatutako GEen ahalbideen arabera ezartzen dituen elkartzeko-kuotak. Kuota horiek urtero berraztertuko dira.

b) Erakunde babesleen dohainak, dirulaguntzak, estamentu nahiz norbanakoekiko konbenioak, emango balira.

c) Fondoaren interes, fondo errenta eta produktuak.

d) Sortzen diren beste kontzeptu batzuegatiko sarrerak. Sarrera horiek guztiak Zuzendaritza Antolamenduaren arabera jasoko dira.

46. atala.- Federazioaren fondoak kontu edo bankuko gordailu batean gordeko dira eta, dauden fondoak erabiltzeko, Lehendakariaren eta Diruzainaren sinadura erkituak behar dira; barauetako bat ez dagoenean edo haren ordezkatzeko gertatu bada, Zuzendaritza Batzordeko beste kide baten sinadura izango da beharrezkoa, delako Batzordeak espresuki baimenduta.

47. atala.- Aurrekontua urte naturaleko edo/eta ikasturteko eperako prestatuko da, eta haren prestaketan Federazioaren beharrak hartuko dira aintzat; Batzar Orokorrari dagokio aurrekontua onartzea. Ohikoa eta ezohikoa izan ahal izango da. Ekitaldia ekainaren 30ean itxiko da.

48. atala.- Ikuskapen organo bat sortuko da, "Zaintza Batzordea" deritzona. Ez Federazioaren Zuzendaritza Batzordeko, ez delako Batzordean ordezkaturako GEetako partaideak ez diren Batzar Orokorreko bi kidek osatuko dute. Zaintza Batzordea Batzarrak hautatuko du, beronek hala eskatuta.

Hauek dira Zaintza Batzordearen eskumenak: Federazioaren kontularitza liburuak eta baliabide ekonomikoen erabilpena ikuskatu; bere zereginak egokiro bete ahal izateko behar duen informazio oro jasotzea izango du Diruzainarengandik. Urtealdietako balantze eta itxidurak onartuko ditu bere "Ontzat Emanaren" bidez, edo aitzitik, Zuzendaritza Batzordeari eta, hala badagokio, Batzar Orokorrari emango die egokitzat jotzen dituen kontrako arrazoien berri.

Bere jarduerak erabateko autonomia izango du Zuzendaritza Batzordearekiko eta beronekin bildu ahal izango da beharrezko irizten dionean. Bilerotara hitzarekin baina boto eskubiderik gabe joango dira.

SEIGARREN ATALBURUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

49. atala.- Estatutuaren aldaketak burutzea Zuzendaritza Batzordearen ekimenez eskatu ahal izango da, edo bestela beronek erabakita GE federatuen % 10ek eskatzen duenean, baldin eta guztirako kuotaren % 20 ordeztzen badute. Nolanahi ere, Zuzendaritza Batzordeak hiru lagunek osaturiko Azpibatzaordea izendatuko du, federaturiko GE batzuetako kideak, aldakuntza proiektua idatz dezan, hark emandako jarraibideen arabera; Zuzendaritza Batzordeak delako proiektua amaitu behar den epea zehaztuko du.

50. atala.- Aldakuntza proiektua zehaztutako epean taxututa, Lehendakariak egiten den lehen Zuzendaritza Batzordearen Gai Zerrendan sartuko du; beronek proiektua onartu edo, hala badagokio, Azpibatzaordeari itzuliko dio berriz azter dezan.

Hori onartua izanez gero, Zuzendaritza Batzordeak egiten den hurrengo Ezohiko Batzar Orokorraren Gai Zerrendan sartzea ebatziko du, edo helburu horretarako deitzea erabakiko du.

51. atala.- Batzarrerako deialdiarekin batera Estatutuen aldakuntzak dakartzan testua helaraziko da, GE federatuek egoki irizten dieten zuzenketak egin ditzaten; Batzar Orokorrari zuzenketa horien berri emango zaio, beti ere Idazkaritzaren esku bilkura egin baino hamabost egun lehenago badaude.

Zuzenketak banan-banan zein taldeka egin ahal izango dira, idatziz ezinbestean, eta beste testu alternatibo bat jaso beharko dute.

ZAZPIGARREN ATALBURUA

ELKARTEAREN DESEGITEA ETA BALTZU ONDAREAREN APLIKAZIOA

52. atala.- Federazioa desegiteko zioak hauexek dira:

1) Federatutako GEek hala nahi izatea; borondate hori helburu horretarako deitutako Ezohiko Batzar Orokorrean adierazi behar da, eta beharrezkoak izango dira bazkide guztien bi herenen aldeko botoak, Estatutu hauen 8. atalean ezarritako ordezkapen baremoarekin bat.

2) Kode Zibilaren 39. atalean zehaztutako arrazoiengatik.

3) Epaitegiaren sententziagatik.

53. atala.- Federazioa desegitekotan, desegitea erabakitzen duen Batzar Orokorrak Zuzendaritza Batzordeko 5 kidez osaturiko Batzorde Likidatzailea izendatuko du, dauden fondoan ardura har dezan.

Besterekiko baltzu betebeharrak beteta soberan gera litezkeen fondo eta baliabideak une horretan Federazioaren partaide diren Elkarteei zuzenduko zaizkie; orduan ordaintzen ari diren kuoten araberako proportzioan burutuko da banaketa.

BATERAEZINTASUNEN ATALBURUA

Zuzendaritza Batzordeko kide izatea bateraezina izango da kargu publikoekin edota Federazioarekiko interes gatazkak sor litezkeen jarduera pribatuak burutzearekin.

Zuzendaritza taldekoak Hauteskunde Orokor, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunde edo Hauteskunde Lokaletan hautagai izanez gero, Zuzendaritza Batzordeko kide izateari utziko diote hauteskunde aldian, eta debekatu egiten zaie kanpainan beren kargua baliatzea; hautetsita ateratzen badira, uko egin beharko diote beren karguari.

Bateraezintasunok berrikusi ahal izango dira Batzar Orokorrak egoki irizten badio; horretarako, puntu horrek espresuki sartuta egon behar du Batzarraren Gai Zerrendan.

AZKEN ZEDAPENAK

LEHENA.- Zuzendaritza Batzordea izango da estatutu hauetan jasotako manuak interpretatu eta beronen hutsuneak betetzeko eskuduna, beti ere Elkarteen alorrean indarrean dagoen legeriari men eginez eta egiten den lehen Batzar Orokorrean haren berri emanez, hura onartze aldera.

BIGARRENA.- Honako estatutu hauek Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak baliotasunez hartzen dituzten erabakien bitartez aldatuko dira, nork bere eskuduntzen barnean, eta Seigarren Atalburuan xedatutakoa betez.

HIRUGARRENA.- Batzar Orokorrak Barne Araudia onartu ahal izango du Estatutu hauei garapena emateko; horrek ez du, inola ere, eurek dakartzaten aginduetan aldaketarik eragingo.

LAUGARRENA.- 10. ataleko 6. puntua gauzatzeko, GE federatuek beren bazkide kopuruari buruzko informazioa emango dute, bakoitzaren Idazkariak emandako Egiaztagiaren bidez, ikasturteko lehen hiruhilekoaren barnean eta Ohiko Batzar Orokorraren deialdia burutu aurretik; delako informazioa eta Federazioaren Batzarrean izango dituzten ordezkarien izenak postaz igorri ahal izango dira.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko azaroak 9

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA